

NAFARROAKO FORU ZIBIL BERRIAK HOGEITA HAMAR URTE: TESTU EUSKARATUAREN AURKEZPENA

Sarritan hitz egiten da gure artean foruez eta antzinako legeez. Izan ere, aspaldiko kutsua duen zerbaiten traza hartu dio euskaldunak euskal foru eta legeen munduari. Zerbait hori, bizi-bizia baino, hilda eta ondo hobiratuta aurkeztu zaio behin eta berriro herritarrari. Mezua, beraz, bidenabar etorri da: iraganaren zantzuak dira hor nagusi; ez, ordea, orainaren ezaugarri.

Eguneroko bizitzan, alabaina, gauzak ez dira hain errazak. Foruak ezabatu zireneko hori, bistan da, ezinbesteko gertatu zen zuzenbide publikoan, gobernu-erakundeetan. Hortaz, Nafarroan zein Araban, Gipuzkoan nahiz Bizkaian, XIX. mende bitartean, prozesu luze baten mugarriak dira ageriko, foruen murrizketa dela eta; besteak beste, Nafarroako Hitzarmen Legea (1841) edo gainerako herrialdeen foruak indargabetzeko xedapenak (1876).

Historia ezaguna da hori, eta denon gogoetan egon daitekeena. Ez horrenbeste, foru horien bestelako esparruarena, alegia, zuzenbide pribatuarena. Alor horretan, hain zuzen ere, foruen biziraupena eta indarra gaur arte iritsi da.

Gizaldien arteko aldaketak ekarri du, 2003. urte honetan, Nafarroako zuzenbide pribatuak harako urteurren nabaria izatea, oraintsu bete baita Nafarroako Foru Berria aldarrikatu zene-

tik hogeita hamargarren urtea. Aurten ere, eta historian lehenda-
biziko aldiz, euskaraz agertzeko tenorea egokitu zaio lege-testu
horri. Bi horiek merezi dute, gure ustez, hitz biño esatea, eus-
kaldun nafarrentzat eta, oro har, enparau euskaldunentzat ere,
testu horrek izan dezakeen garrantzia kontuan hartuta.

Nafarroako Forugintza XIX eta XX. gizaldietan. Kontu la- burrak

Gorabehera hauetan ohiturik ez dagoenarentzat, esan deza-
gun, hasteko, lege-testu hori dela historian zehar Nafarroan
izan diren zuzenbide pribatuko foru-lege guztiak bildu, egune-
ratu eta barruhartzen dituen bilduma.

Bertara ekarri dira, Nafarroako zuzenbidearen iturriak, fami-
lia- eta oinordetza-zuzenbidea, ondasunak, eskubide errealak
eta kontratuak. Orobat, araubide horren legeetan, Nafarroako
zuzenbidea, aspaldikoa eta oraintsuagokoa. Berba batez esate-
ko, Nafarroako nortasun juridikoaren zati ederra, bizi-bizirik
eta indarrean dirauena.

Historiak ere argi erakutsi dizkigu, azken bi mende hauetan
bederen, foru-zuzenbide zibilek bizirauteko izan dituzten zail-
tasunak. XIX. mendeko Kode Zibil espainiarrak (1888-1889)
ekarri zuen, lurralde forudunetan foru-zuzenbidea testu ba-
tzuetaara bildu beharra, hain justu, Kode Zibilaren berberaren
eranskin hutsak izan beharko luketen testuotara.

Aurretiazko txostenak egin behar horretarako, eta
Nafarroan¹ Morales y Gomez juristak egin zuen delako txosten
hori (1884), inongo arrakastarik ez eta guztiz eragingabe gerta-
tu zena. Harrezkero ere, bestelako proiektuak burutu ziren, gi-

¹ *Nafarroako Foru Zuzenbidearen historia, Espainiako Kode Zibilaren inguruan, ikus daiteke, besteak beste, in SALINAS QUIJADA, F. : Elementos de Derecho Civil de Navarra Diputación Foral de Navarra, Iruñea, 1979, 87. orrialdetik 101.erakoak.*

zabanako zehatzen ekimenez (Monreal, 1895; Covián, 1910-1920; Aizpún/Arvizu, 1929-1930) nahiz erakunde batzuen bultzadaz (batzorde berezia, 1900 —Arturo Campion euskaltzalea batzordekide zela—; Iruñeko Notarioen Elkargoa, 1930).

Gerra aurreko porrotak ez zuen proiektu berrietarako grina ezabatu. Hainbatez, Nafarroako Foru Aldundiak bere aurre-proiektua berria argitara eman zuen 1944. urtean. Norabideak, haatik, beste nonbaitetik zetozen.

1946. urtean Zaragozako Biltzarrak erabaki zuen Espainiako foru-zuzenbideen geroa. Nondik norakoak bestera antolatu ziren, eta Kode Zibil bakar baten lorratzean jarri ziren lurralde forudunen bildumak. Hasi, 1959. urtean hasi zen prozesua (Bizkaiko eta Arabako Bilduma) eta amaitu, 1973an, Nafarroako Foru Bildumarekin. Artean, foru-munduak bere osagarriak burutu zituen hogeita lau urte luzetan.

Nafarroako Foru Berria (1973)²

Esan bezalaxe, Nafarroako Foru Berriak oinarriak ditu Zaragozako Biltzarrean. Hura bukatu eta berehala jarri zen Nafarroako Foru Aldundia foru-zibil berria moldatzeko zereginetan.

Nafar juristak bildu eta 1959. urteko abenduaren hiruan eskuratu zuen lehen proiektua (*Fuero Recopilado de Navarra*). Horrek ere ez zuen patu onik izan, eta 1962. urtean berriro ere ekin zion jurista-talde batek lanari, 1970. urtean testu bat biribildu arte. Berori argitaratu zen, *Bilduma Pribatuaren* titulupen, 1971. urtean.

Hori oinarri hartu eta onetsi zuen Nafarroako Foru Aldundiak, jarraian *Nafarroako Bilduma* moduan aldarrikatu

² *Nafarroako Foru Zibil Berriaren xebetasunak, historiari dagokionez, in NAGORE YARNOZ, J. J. : Historia del Fuero Nuevo de Navarra, Nafarrokoa Gobernua, Iruñea, 1994.*

zuelarik testu bera 1973. urteko hasieran. Tenore horretan igorri zitzaion Francisco Francori, orduko estatuko buruzagiak onets zezan.

Arazoa, nonbait, bestetik zetorren, alegia, Nafarroak uler-tzen zuela 1841eko Hitzarmen Legearen bitartez, Foru Berriaren onespentak eskatzen zuela testuaren osotasuna, Madrileko Gorteeek inolako aldakuntzarik egin gabe.

Estatuko buruzagiak hala aitortu eta aldarrikatu zuen, 1973. urteko martxoaren lehenean, ordu arte proiektu zena indarreko lege eginez. Francok, dena den, gerra-denboran eskuraturiko ahalmen legegileak jardun zituen horretarako, ezohiko ekitaldi batez³.

Foru Berriak 596 lege zituen, eta ordu arteko bildumetan zabalena eta orohartzailleena zen, edukiari begira behinik behin. Lege-testua onetsi eta aldarrikatuta, Nafarroako Foru Aldundiak bere poza agertu zuen, Amadeo Marco foru-agintariak sinaturiko ohar ofizial baten bidez, urte horretako martxoaren 7an.

Harrera ona izan zuen testuak. Horren adierazle, besteak beste, euskarazko aldizkari nafar batena. Izatez, bazen garai hartan, Nafarroako Foru Aldundiak berak bultzatua, euskarazko aldizkaria, hilerro-hilerro Iruñean agertzen zena. *Suplemento mensual de la revista Príncipe de Viana, destinado al fomento del vascuence* (SPRV aurrerantzean) zuen izena hark⁴. 1973. urteko martxoko zenbakiak oihartzun zabala egin zion Foru Berriaren inguruko mezu horri, eta haren zatirik mamitsuena ere euskaraz plazaratu zuen:

³ Francok bere botere legegilea erabili zuen, aurreko erregimenaren lege organikoak aitortzen zizkion abalmenez baliatuta. Izan ere, abalmen legegileak zituen berak, gerra denborako bi legeren bidez (1938. urteko urtarrilaren 10ekoa eta 1939. urteko abuztuaren 8koa).

⁴ SPRVren ideologiari buruz, ikus IRLARTE LOPEZ, I.: «El legado de los éuskaros: El discurso sobre el euskara en el suplemento en vascuence de Príncipe de Viana», in *El euskera en tiempo de los éuskaros, Nafar Ateneoa, /Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2000, 317. orrialdetik 338.erakoak.*

NAPAR GUZIEF

Forudun Diputazio au poztutzen da napar guziei, jarraitzen dana, jakinarazten:

España-ko Agintari Nagusiak Lege bat eman duela Naparroa k antziñatik dauzcan Lege Zaarren Bilduma ontzat emanaz.

Lege ori Estaduaren Boletínean argitaratua izan da ill onen lenengoan.

Naparroa ko Bilduma orrek 596 lege ditu; bertan gure Lege Zaarrak osorik jasoak daude. Izen aundiko lege-gizonak osatzen duten batzordeak egin dute Bilduma ori.

Aurten Ilbeltza ren 26 an onartu zuen Diputazio onek, Kontseju Forala ren Batzordearen iritzia entzun ondoren.

Garrantzi aundiko berri au Naparroa ri pozik jakin araziaz, gure eginkizuna betetzen dugu, Napartarrak beren Legeen berri izan dezaten. Orrela, aspalditik nai genduen mugara eldu gera.

Iruña, 1973-ko Epailla ren 7 an.

AMADEO MARCO, Lendakari-ordekoa

Aldizkariaren lehen orrialdeko goiburua guztiz esanguratsua zen: *Naparroa ko lege zarrak, aurrera.* Idazleak goresmen handiak egin zizkion lege-testu berriari: *Gauza aunitzetan Naparroa bere bizi ta buruaren jabe da. Bere lege berexi oiek onartuak izateak, aunitz esan nai du; ez dala bertzeak bezalakoa, ain zuzen. Bere lege berexi oiek, bere nortasuna zuzperten dute ta bere arpegia indar berritua agertzen digute⁶.*

Aurkakorik egon ote zen galdetuz gero, burura datorkigu Manuel de Irujo nafar abertzale gartsu eta nekazina. Telegrama bat igorri zion hark Foru Aldundiari, legearen onepena gogor kritikatu⁷. Hor amaitu ziren kontuak.

⁵ SPRV, 85 (1973), 1. or.

⁶ *Ibidem.*

⁷ *Telegramaren testua ikus daiteke in NAGORE YARNOZ, J. J. : Historia del Fuero Nuevo de Navarra. Nafarroako Gobernua, Iruña, 1994, 316. or. Hitz gogorrak, Irujoren aldetik, Foru Berriaren aurka: Aprobado Apendice Codigo Navarra pierde soberania civil por gestión indigna stop cuando Navarra recobre libertad exigiremos responsabilidades Irujo.*



“PRINCIPE DE VIANA”

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA. DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Financiado con el subsidio N.º clasificador 34/50

Director de la Institución Príncipe de Viana: MARCELINO GARDE

Zuzargaren urtea — Pamplona, Marzo — 1973 — Epaila — Irufa, 85-pg. zerbaitik

DIRECTOR: J. E. URANGA

NAPAR GUZIEI

Forudun Diputazio au postutzen da napar guziet, jarraitzen dans, jakinarazten:

Españi-ko Agintari Nagusiak Lege bat eman duela Nafarroa'k antziziatik daukan Lege Zaarren Belduma onatzen emanaz.

Lege ori Estatuaren Bolelléan argitaratua izan da III onen lehengean.

Nafarroa'ko Belduma orrek 596 lege ditu; bertan gure Lege Zarrak osorik jaseak daude. Isen aundiko lege-gitonak esaten duten batzordeak egin dute Belduma ori.

Aurten Ibelitza'ren 25'an onaritu zuen Diputazio onek, Kontseju Forala'ren Batzordearen iritziak entzun endoren.

Garrantzi aundiko berri au Nafarroa'ri pozik jalein ataxiaz, gure eginkizuna betetzen dugu, Nafarlarrek beren Legeen berri izan dezaten. Orrezi, azpalditik nat genduen mugara eldu gera.

Irufia, 1973-ko Epaila'ren 7an.

AMADRO MARCO, Lendakari-ordetkoa



NAPARROA'KO LEGE ZARRAK, AURRERA!

Nafarroako Foru Berria eta testamentuak euskaraz

Nafar lege-testu zibilak bazuen euskararen ikuspegitik zer esan eta zer aztertu. Besteak beste, 192. legean, nafarrek, gero-ago esango denez, bazuten eskubiderik testamentuak euskaraz egiteko: *Nafarrek euskaraz egin dezakete testamentua. Testamentua notarioaren aurrean egiten bada, eta horrek ez badaki euskaraz, beharrezkoa izanen da testamentugileak aukeraturiko bi interpretatzailearen esku-hartzea, horiek testamentugilearen xedapena gaztelaniara itzul dezaten; testamentua bi hizkuntzotan idatziko da, Notario Erregelamenduak ezartzen duenarekin bat etorri⁸.*

⁸ *Gaztelaniazko testuak honetara dio:* Ley 192. Los navarros podrán estar en vascuence. Cuando el testamento se otorgare ante Notario y éste no conociere el vascuence, se precisará la intervención de dos intérpretes

Esan legez, *Suplemento mensual de la revista Príncipe de Viana, destinado al fomento del vascuence* aldizkariak berehala erakutsi zuen bere atsegina, Nafarroako Foru Berria onetsi zelako. Orobat, fermuki gogoratu zien nafarrei, handik laburrera, testamentuak euskaraz egiteko aukera bazutela eta horretarako eredia ere eskaini⁹. Bi-bitara eman zuen testu euskalduna, erretorearen aitzinean nahiz notarioaren aurrean egin beharreko azken-nahietan. Aurrekoen osagarri eta erabilgarri, berebat, testamentuetan edo azken-nahietan usu agertzen diren hitzen zerrenda, euskaraz eta gaztelaniaz emana¹⁰.

elegidos por el testador que traduzcan su disposición al castellano; el testamento se escribirá en las dos lenguas, conforme se establece en el Reglamento Notarial.

⁹ SPRV, 87 (1973), 1. or.: Euskaldunak, bere azken naia egiñaz, euskeraz idatzirik uzten dula, egitazko euskalduna zala, garbi agertzen digu. **Ortarako legeak Naparroan bidea ematen dute.** Euskaldunak, zuen azken itza agertzean gogoan euki, euskeraz idatzita utzi. Orduan bai, Euskalerriko sapaian izar berri bat gehiago uzten duzutela.

¹⁰ SPRV, 87 (1973) 2 or. **Azkenaietan erabiltzeko itz:** **adindun**, mayor de edad; **arabera**, en conformidad; **araketa-arauen**, fórmulas del estudio; **arrobada**, robada (medida antigua de Navarra); **azkenai**, testamento; **azkenai-betetzalle (arduradun)**, albacea; **baietsi**, otorgar; **baiezpen-arau**, fórmula de otorgamiento; **baitura**, hipoteca; **balduztza, arau**, cláusula (condición); **baratari**, notario; **baturik doan**, adjunto; **ber-onetsi**, ratificar; **edatu**, extender; **egoera**, estado; **ekintza**, acto; **elkartu-eziña**, incompatibilidad; **eraiki**, instituir, fundar; **esku-ondasun**, bienes muebles; **gai-izan**, ser idóneo; **galdekatu**, consultar; **gertarera arruntak**, casos normales; **idazkaritza**, estudio (del notario); **izakera**, condición, naturaleza; **itzuli**, reintegrar, traducir; **itzultzale**, traductor, intérprete; **karlatxo**, carlín; **lur-ondasun**, bienes inmuebles; **napar-lege**, fuero navarro; **oiezko, oiturako**, acostumbrado; **ondasun-orotasunean**, en la universalidad de bienes; **oñordeko**, heredero; **oñordekotza erabakia**, sucesión dispuesta; **osagarritz**, complementariamente; **ozenki**, en voz alta; **zati-askatua**, la libre disposición; **zin-egin**, dar fe, jurar; **ziñaldari**, testigo; **ziurtatu**, asegurar.

Ekar dezagun orrialdeotara testuotako bat, gerora egin diren beste saio batzuen aitzindari:

NOTARIOAREN AURREKO AZKENAIA¹¹

(Alako urian, urtean, illean, egunean, ordutan), ni, (izena), Baratari edo Notario-talde aundikoa naizen idazkari-tzan azaldu zan (izena) (alakoan semea) (alako auzotarra), adindua, bere azkenaia emateko asmoetan, eta ziñaldari bezala (alako) ta (alako) gai eta trebe diranak, eta aurkeztu dana ezagutzen dutela ziurtatuaz, ziñaldari eta Baratariaren iritziz legezko gaitasuna dularik, bere azkenaia azaldu du.

1^ogn. Jainkoari dei egin dio, katoliko, apostolutar eta erromatarra da ta bere gorputzak eortzea izatea ta bere gogoaren alde illetak eta gañerako elizkizunak sendiak adieraziko dun eran egitea nai du.

2^ogn. Lenengo aldiz (emaztearen izena) kin ezkondua dago ta (hainbeste) seme-alaba ditu.

3^ogn. Aske dagon ontasun-zatia emazteari, emazte bezala legez dagokion zatiaren gozamenaz gañera.

4^ogn. Orotasunezko oñordeko bere semeak izendatzen ditu.

5^ogn. Aurrez iltzen diran semeen ordezko aien semeak izango dira.

6^ogn. Azkenaiaren arduradun (alako) izendatzen du, eginkizunaren oiturako almenak baieztuaz: ondasunen kontuak eraman, artzekoak eskatu ta jaso, diru-etxe ta gañerako tokietatik altxatutakoak atera agiriak eta baitura ezeztatzeak eman, gai-zerrendak egin, ezkontza-elkartea bukatu, gai-zerrendatuak banatu, azkenai-betetzearen izena eraman auzietar, eta auzitik kanpora bost urteko luzapena lortu.

Onela ematen du (alako) azkenai iriki au, eta bera jasorazten du. Agerbide au Baratariak ozenki irakurri die azkenai-emalleari eta ziñaldariei eta irakurri ez dutenei egiteko duten eskubideaz oar-arazten. Danak jakiñaren gañean gelditu dira (alako) Jaunak zeatz eta argi aitortzen du, aintzine-

¹¹ SPRV, 87 (1973), 2 or.

an daudenak ikusirik, irakurritakoak azkenaia dan bezala adierazten dula eta ziñaldariek in izenpetzen du.

*Azkenai-emaillearen ezaguera, bizibidea, auzotazuna, be-
arrezko lege-baldintzak eta agerbide agiria ekintza batean ba-
karrik egiña izan dala aitortzen dut, eta (8'garren) malleko
(0067378) zenbakidun paper-orri sillatu ofizialean edatua eta
osagarritz itzulua izanik, nik Baratari onek zin egiten dut, si-
llatu ta izenpetzen dut.*

Nafarroako Foru Berria euskaraz

Nafarroako zuzenbidea gaztelaniaz idatzita agertu da beti-
danik. Ezagunak dira, bestalde, Yanguas y Miranda, Bonifazio
Etxegarai, Iribarren, Caro Baroja eta bestelako ikertzaileek pla-
zaratutakoa, alegia, foruetan bazirela berba batzuk euskara hu-
tsez jaso eta erdararen itsaso zabalean uharte adierazgarri zire-
nak. Adierazgarriak, batik bat, horiek erakusten zutelako hain-
bat erakunderen jatorrizko izendazioa euskarazkoa zela. Hala
bizi zituen herriak, eta hala ezarri ziren erdaraz moldaturiko le-
geetan ere. Horiek ziren eta horiek dira, egun ere, Nafarroan
bizirik dagoen zuzenbidearen lekuko eta testigantza paregabe-
ak. Horiek ere, esan gabe doa, beren horretan datoz
Nafarroako Foru Berrian, 1973. urtean.

Bi alderdiak ziren, beraz, aintzat hartzekoak, euskararen go-
rabeheretan, Nafarroako Foru Berriaren euskaratzea zela eta.
Lehena, euskarazko hitzak jasotzea, nafar zuzenbideak eska-
tzen zuen modurik egokienean; bestea, lege-testuan bertan
euskarari ematen zaion lekua gordetzea, nafar guztiek erabil-
garri izan zezaten euren testamentuetan, lehen esandakoaren
192. legearen ildotik.

Bi horiez kanpo ere, bazen hirugarrenik, Nafarroako Foru
Berriaren 30. urteurrenean. Besteak beste, euskararen ofizialta-
suna, Nafarroaren Foru Hobetzeak (1982) ezarri zuena. Horren
bidez gauzatu eta bururatu da Foru Berriaren euskaratze-lana.

FORU BERRIA
EDO
NAFARROAKO
FORU ZUZENBIDE ZIBILARI
BURUZKO KONPILAZIOA



Nafarroako Parlamentua

**Foru-lege
zibilak**

Euskal Autonomia Erkidegoa
Nafarroako Foru Komunitatea

**Leyes civiles
forales**

Comunidad Autónoma
del País Vasco
Comunidad Foral de Navarra

Lege-testuak
Textos legales

Horren bidez ere, Nafarroako foru-zuzenbide zibilak bere baitara bildu ahal izan ditu euskararen ahozkoatasuna eta idatzizkoatasuna.

Aspalditik ekin genion lege-testuen euskaratze-bideari Deustuko Unibertsitateko Eusko Ikaskuntzen Institutuan eta Zuzenbide Fakultatean. Zuzenbide zibileko testuak euskaratze-ko taldea sortu eta eratu genuen¹², eta lanaren emaitzak berehala jarri genituen denon eskura, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen laguntzarekin. Bost liburu mardul dira horren ezaugarri, zuzenbide-ikasketak bururik buru estaltzen dituztenak zuzenbide zibilaren ikuspegitik. Falta ziren, bistan denez, foru-zuzenbide zibilaren legeak eta Kode Zibila, hau da, aurreko bost eskuliburuen osagarriak.

Lehen-lehenik, foru-zuzenbide zibila hartu genuen xede. Euskaradun herrialdeetan zein foru-zuzenbide izan eta horri ekin genion, euskara lanabes hartuta. Euskal Autonomia Erkidegoarena erraz menderatu genuen, aspaldikoa baino, oraintsuagoko testua baitzen (1992), eta, euskararen ofizialtasuna zela bide, idazkera ofizialekoa baikenuen, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratua¹³. Nafarroakoa (1973), berriz, zailagoa, euskararen ofizialtasuna, gorago adierazi bezalaxe, harrezkerokoa baita. Azken aldietan izan dituen lege-aldaketa batzuk zirela eta, bazuen, haatik, Nafarroako Foru Berriak euskarazko agertze ñimiño bat. Beharrezkoa zen, zernahi gisaz, beste bide batetik abiatzea. Adostasunaren bidea aukeratu genuen, eta hala egin ere, Nafarroako Parlamentu eta Gobernuko itzultzaileekin batera jokatzeko.

¹² *Talde horrek jardun du, Gotzon Lobera eta Andres Urrutiaren gidaritzapean, eskuliburuak eta lege-testuak euskaratzen. Bertako partaideak ere aipagarri: Eba Gaminde, Begoña Landa eta Esther Urrutia irakasle bikainak.*

¹³ *3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa. Horren argitalpena in EHAA, 1992ko abuztuak 7, 153. zk.*

Harrera ezin hobea izan genuen bi-bion aldetik¹⁴. Nafarroako Parlamentuak eginkizun zuen une hartan Foru Berria euskaratzeko agindua, bertako mahaiak onetsia¹⁵. Hartara, Deustuko Unibertsitateko taldeak egin zituen oinarrizko lana eta testua. Horren hurrengo etorri ziren testura, hitzarmen baten bidez, Nafarroako Parlamentu eta Gobernuako itzultzaileek proposaturiko ohar eta ekarri ugari eta arrazoituak, testua ahalik eta osoen izan zedin. Artean ere, Eusko Jaurlaritzaren Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak bere iradokizunak egin zituen, testua, esan bezala, bateratu eta eredugarri gerta zedin.

Kezka nagusi genuen nafar-izateari erro-errotik loturik dauden esamoldeak eta xehetasunak egoki zertzea. Lurgintzaren kontratuetan errentak ordaintzeko santuen egunak, artzainen bideak eta bide-zidorrak, esamolde juridiko hutsak (*paramiento fuere vienze*)... Horiek oro ziren euskaragai. Moduak ere ez nolana hikoak, txukun eta jakintsuen bitartez baino. Egin-eginan ere, hiru aditu trebe eta hipil izan genituen aholkulari, Nafarroako euskara luze-zabal ezagutzen dutenak. Jose Mari Satrustegi, Andres Iñigo eta Patxi Zabaleta izan ziren gure giderrak, hainbat xehetasunen argibidean¹⁶.

Azkenez ere, bi argitalpen egin ditugu, euskarazko testua berbera izan arren. Lehena, herrialde euskaldunetako foru-zu-

¹⁴ Besteak beste, aipagarriak dira Parlamentuko itzultzaileen artean, Ander Irizar-en *ekina*. Nafarroako Gobernuaren itzultzaileen artean Mikel Taberna izan zen gure solaskide.

¹⁵ Foru Berriaren gaztelaniazko testua Enrique Rubio Torrano zuzenbide zibileko katedradunak eta María Luisa Arcos Vieira zuzenbide zibileko irakasle titularrak prestatuturikoa zen. Gaztelaniazko argitalpena, prestatzaileen aitzin-solasarekin in *Fuero Nuevo o Compilación de Derecho Civil foral de Navarra*, Nafarroako Parlamentua, Iruñea, 2001.

¹⁶ Aitzin-solasa in Foru-lege zibilak/Leyes civiles forales. *Deustuko Unibertsitatea/Herri Arduralaritzaren Euskal erakundea*, Bilbo, 2002, 15. or.

zenbide zibila batzen zuena, Deustuko Unibertsitatearen eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eskutik, eta bi hizkuntzetan paratua, aurkibideak eta guzti¹⁷. Bigarrena, Nafarroako Parlamentuak egin duena, euskara hutsean eta bestelako lege nafar eta aurkibidearekin hornitua¹⁸.

Horra gure lanaren emaitza, Nafarroako Foru Zuzenbidearen 30. urteurrenean. Berori euskaraz mintzatzen jarri, ofizialtasunaren eskakizunak bete eta Nafarroako tradizioan txertatzen diren hainbat hitz eta esamolde euskaraz agertzea, betiere, asmo baten pean jokaturik: oraingo euskal azalaz berriturik agertzen denak ez diezaiola muzin egin foruz eta tradizio bidez nafarrek egun ere bizi duten aspaldiko lege-multzoiari.

Andres Urrutia

¹⁷ Foru-lege zibilak/Leyes civiles forales, *Deustuko Unibertsitatea/Herri Arduralaritzaren Euskal erakundea, Bilbo, 2002*.

¹⁸ Foru Berria edo Nafarroako Foru zuzenbide Zibilari buruzko Konpliazioa, *Nafarroako Parlamentua, Iruñea, 2003*.